

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko irailaren 6a

✱



Plastilinzako panpin bizidunak

■ Plastilinzako panpinak bizirik daude Lizarran, Kima Kultur Zerbitzuak taldeari esker. Marrazki bizidunak egiten ikasteko tailerra antolatu du, Lizarrako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Gazteriaren Bulegoarekin batera. Zazpi gaztek eman dute

izena eta uztailaren erdialdetik ari dira lanean. Jose Alberdi Kima taldeko-kidearen laguntzaz, *Baru* izeneko filmean amets baten istorioa kontatu dute, euskaraz eta erdaraz. Filmaketa bukátuta, datorren astean hasiko dira muntatzen. ■

GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Lesaka: Doneztebeko abesbätzak kontzertua eskainiko du igande-
dean, hilak bederatzia, San Martin
elizan, 20:00etatik aurrera.

Barañain: Herriko gaiteroek bihar,
hilak zazpi, dianak joko dituzte
09:00etatik aurrera, Udalak an-
tolaturiko gaita zikloaren ba-
rruan.

Lesaka: 16 Jazz Eroak taldeak
kontzertua eskainiko du hilaren
12ko 21:00etan Kasinoan, Ber-
tizko turismo partzuergoaren es-
kutik.

ANTZERKIA

Untzue: Kilkarrak taldeak *Jonjoli*
ikuskaria antzetzuko du gaur,
hilak sei, 21:30etatik aurrera,
herriko pilotalekuan.

Zugarramurdi: Ikili Mikili Klik
taldeak egunero *Sorginak* izene-
ko ikuskaria antzetzten du herri-
ko kobazuloetan. Lanegunetan
emanaldi bakarria izaten da
18:00etan. Larunbat eta igan-
deetan horretaz gain beste ema-
naldi bat izaten da 13:00etan.

ZINEMA

Barañain: Heldu den asteartean,
hilak 10, zinema amerikar espe-
rimentala ikusi eta halaber Alex
Mendizabalen musika zuzenean
entzuteko aukera paregabea
izanen da Kultura plazan,
21:00etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Gotorlekuko Labea are-
toan *Formak* izeneko erakusketa
ikusgai izanen da irailaren 29ra
arte. Horretan, gaur egungo es-
kulturaren erakusgarri diren
hainbat lan dira ikusgai.

Lizarrak: Agustina Otero eta Leo-
poldo Ferranen muntaia aza-
roaren 17ra arte izanen da ikus-
gai Gustavo de Maeztu museoan.

Elizondo: Ana Marinen oleoak
ikusgai dira Bergarenea etxean
Donejakue kalean. Goizetan
11.30etatik 13.00etara, eta arra-
tsaldtan 17.00etatik 21.00etara
izaten da irekita erakusketa.

IKASTAROK

Lizarrak: zanko ikastaroa izanen
da hilaren bederatzitik 30era,
herriko Gaztedi Bulegoak anto-
laturik. Informazio gehiago
lortzeko dei 588224 telefonora.

Iruñea: Web orriak nola egiten
diren ikasteko ikastaroa antolatu
du Nafarroako Internet Taldeak.
Ikastaroak astelehenero goizez
eginen dira taldearen egoitzan.
Bost astelehenero zehar ordu
beteko ikastaroa jasotzearen
truke parte hartzaileek 12.000
pezeta ordaindu beharko dituzte.

ATERALDIAK

Baztan: Arkupeak bailarako jubi-
latuen elkarteak Gipuzkoako Le-
zo herrira ateraldia antolatu du
hilaren 14rako.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Udako irakaspenak

Egutegiaren arabera uda oraindik amai-
tu ez bada ere, ohiko bizimodu eta
erritmora bueltatu behar izan dugu-
nontzat irailaren hasierako egun hauek
udakoak ez baizik eta negukoak, negu
gorriko egunak dira.

Etaparen hasierak balantzea egiteko parada
ematen digula aprobetxatuz, eguzkirik gabeko
udako irakaspen batzuk gogora ekar ditzagun.
Horietako bat hauxe da: gai batzuek etsaiak
lagun bihurtzeko. Gai horiek, jakina, ez
dira nolana hikoak, Madrilgo bulego ponpoxetan
«estatu arrazo» dute izena. Hala eta guztiz ere,
hori baino zehatzago eta argiago erratekotan,
«terrorismo», «hilketak», «uniformedunen inpu-
nitatea» eta antzekoak erabili beharko genituz-
ke.

Hilketen babes bihurturiko CESIDen sekre-
tuak ez dira aurkakoak batzen dituzten baka-
rrak. Bertze estatu arrazo batzuk ere badira,
eta horien artean foru lurralde hauxe dugu.
Sanferminetan UPN eta CDN Bianako egoitzan
bildu ziren entzierroa telebistan ikustera, eta
ziurtzat jotzen zen akordioa sinatzera. Ordu-
rako erregiona-
listek, iturri
onetik, bazeki-
ten prozedura
automatikoaren
bidez lorturiko
lehendakaritza
ezezik, sozialis-
ten sustengua
ere izanen zute-
la behin Dipu-
tazioaren jaure-
gian sartu eta
gero.

Entzierroa
ikusgai eta gero,
erregionalistek
Allirentzat
onartezinak zi-
ren baldintzak
mahaigaineratu
zituzten lagun
ohiarekin nego-
ziatu beharrean
sozialistekiko
tratua askoz

errentagarriagoa zelakoan. Erribera aldeko mi-
litantziak zuzenduriko matxinadak, ordea,
arriskuan jarri du operazioa, Sanzek lehenda-
karitza lortuagatik, hiru urteko bidala oso al-
dapatsua izan baitaiteke berrogei eta hamar
laguneko legebiltzarrean hamazazpi besterik ez
dituenarentzat.

Eta bat-batean, gurea bezalako herri ttikia
berriro Madrilgo egunkariaren editorialetan. Ez,
zorionez, ez da atentatu berririk izan, Maru-
ganek ere ez du txosten famatua ezagutarazi.
Gureak, estatu arrazo bihurtuta, Espainiako bi
alderdi nagusiak ados jarri ditu eta, harrizkekoa
bezain susmagarria bada ere, akordioa pren-
tsara ere zabaldu da Estatuko bi egunkari na-
gusien aburuz argi baitago sozialistek oposizio-
ra joan behar dutela Sanzi lehendakaritzarako
bidea libre utziz.

Corellarrari ere aurtengo udak zerbait ikas-
teko aukera eskaini dio, hots, Diputazio-
ko bulegorako bidea Jesukristoren kalbarioa be-
zain gogorra dela oztupo baten ondotik bertze
bat sortzen baita bide luze eta aldapatsuan. Eta,
gainera, lehendakaritza lortuta ere, badaki

handik aurrera-
koa ez dela
txantxetako
izanen orain arte
deus erran ez
duten parlamen-
tario sozialistek
benetako oposi-
zioa egitea era-
bakitzen badute.

Dena den,
bertze edozein
lekutan kezka-
garria litzatekeen
egoera hori, he-
men ez da hain-
bertzerako. Egu-
netik egunera
Diputazioako bu-
legoa gero eta
hurbilago duen
lehendakarigai
hori ere estatu
arrazoiek kon-
ponduko dutela-
koan nago.



asteko pertsonaiak



Cipria Ciscar
PSOeko antolakuntza idazkaria

■ Cipria Ciscar PSOeko antolakuntza idazkaria suhiltzailearena egitera
etorri zen asteazkenean Iruñera. Agintari sozialistak oso garbi utzi zien
joan zen larunbatean gestoren kontra altxatu ziren militanteei ezin
dutela horrelakorik egin. «Nafarroan gestora da alderdi sozialistaren or-
dezkarri bakarra, eta horrek baino ez du erabakiak hartzeko ahalmena»,
esan zuen Ciscarrek, eta jarraian batzorde erregionala deseginda geldit-
zen zela iragarri zuen. Agintari sozialistak disziplina eskatu zien alder-
dikideei eta ez zen diskrepantziarik onartzeko prest agertu. Mezua argi
gelditu zen: gestoren erabakiarekin bat ez datozenek dagoeneko ez dute
tokirik Nafarroako Alderdi Sozialistan.



Fabian de Freitas
Osasunako jokalaria

■ Egun gutxitan aurrelari bakarra edukitzetik sei aurrelari izatera igaro
da Osasuna. Gaztelu plazako taldetik aldegitear dagoen Castillejo alde
batera utzirik, Quique Eneriz zen, duela pare bat aste, aurrelari gorritxo
bakarra. Egun Simons, Josemi, Gane, Pollock eta Freitas osatzen dute,
Enerizekin batera, Osasunako aurrelariaren zerrenda. Joan den asteartean
Iruñera heldutako Fabian de Freitas, fisikoari dagokionez, horien artean
ikusgarrienetako da. Surinamen jaiotako morrosko holandarrak 24 urte
ditu, 1,86 metroko altuera eta 84 kiloko pisua. Gogorra behar du izan
atzelari izatea eta gizon puska hori, baloia hankartean, zugana korrika
datorrela ikusteak

ahaztu gabe!



JAIK

Lizasoain: Baten batek uste ba-
du abuztuko Ama Birjinak duela
jarrartzailerik gehien, ba, liteke-
na da oker ibiltzea, Andre Maria
irailekoak zaletasun handiak
sortu baititu bazter anitzetan.
Jakina, festez ari gara, eta aste-
buru honetan aukera zabal-za-
bala dago bestagi ederra topa-
tzeko. Guk guztien artean bat
hautatu behar, eta begiak Liza-
soainen pausatu ditugu. Herri
txiki txikia da, Oltzako Zende-
dagoena, Iruñerrian, beraz. Bart
hasi dira jaiak, eta igande artean
izanen da zer ospatua. Herriko
zaindaria Legarra deitutako Ama
Birjina dute. Ekitaldiak anitz di-
renez, honatx azpimarragarrie-
nak: egunero haurrendako jos-
tetak eta gaztelu puzgarriak; pa-
re bat egunez etxeko karri-
kadantzak soinulari eta guzti;
larunbatean herri bazkaria; aurt-
ten zezen suzkoak eta zeruko
suak; dantzaldiak eta igande
eguerdian Barañaingo Harizti
dantzarien emanaldia.

Azken oharra: batzundako
bide bihurri samarra omen da,
eta ez dute erraz asmatzen Li-
zasoainera ailegatzeko bidea. Ho-
riendako esan, Iruñetik joanda
Ororbiako bidegurutzeraino joan
behar dutela eta handik Irurtzu-
nerako norabidea hartu. Ongi
pasa!

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenero ostiralera,
Zokobetailu goizeko 10.00etatik
11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara
Karakola segi hola gazteendako
saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik
14.00etara, bertako bizilagun eta
personaia ospetsuei elkarrizke-
tak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik
12.35etara *Gauza guztien gaine-
tik*, edertasuna eta osasuna,
sukaldaritza, ohiturak.

Lekunberri

Arronitz



Nekazari Eguna ospatuko dute igandean Lekunberrin urtero legez.
XABIER AZPIROZ

Herriko bestak hasiko dira bihar eguerdian

Hilaren 14a arte iraungo dute

Erredakzioa / Iruñea

IRAILAN oraindik jaiak ospatzen dituzte gure herrialdeko herri askotan. Horietako bat da Arronitz. Bertako biztanleek Mendiako Andramari omenduko dute bihar hasi eta datorren larunbatera bitartean luzatuko diren jaietan. Besten hasiera iragarriko duen altxaferoak bihar eguerdian egingen du eztanda Arronitzko zeruan, Mendiako Andramariren egunaren bezperan.

Igandea izanen da egun nagusia eta parrandaren bidez ezezik, meza nagusiaren bidez ere ospatuko dute herritarrek. Egungo jaiak gazteenzat direla erraten duenik badago ere, Arronitzko bestek gustientzako ekitaldiak bildu dituzte aurtengoan. Astelehenean, adibidez, herriko nagusien eguna ospatuko dute; asteartean, berriz, emakumeena. Haurrena izanen da asteazkena eta koardilena osteguna. Ostiralean, berriz, mozzorrotzeko aukera izanen dute guztiek maskaradaren egunean. Larunbatean, azkenik, gaupasarekin amaituko dira aurtengo jaiak. Guztien gustuko bestak, beraz, Arronitzkoak. X

Cascante

Artisau Janarien Azoka egingo dute igandean lehen aldiz

Kaiskat taldeak antolatatu du

Erredakzioa / Iruñea

KAISKAT ELKARTEAK antolatuta, Artisau Janarien lehenaldizko Azoka egingo dute igandean honetan Cascanteko Foruen enparantzan. Feria goizeko hamarrak eta arratsaldeko ordu biak bitartean egonen da zabalik, nahi duen guztia bertara hurbil dadin. Azoka honen bidez, ekoizlea eta eroslea harremanetan jarri nahi dituzte antolatzaileek. Besteak beste, gazta, pate, marmelada, kontserbak eta hainbat likore izanen dira ikusgai.

Azoka hau egiteko ideia aspaldi bururatu zitzaion Kaiskat taldeko kideei, baina aurtentzen lortu dute abian jartzea. «Laugarren urte artisau azoka egin dugu maiatzean, eta bertan mota guztietako produktuak bildu genituen, baita artisau janariak ere. Baina gure asmoa bi azoka ezberdin egitea zen, eta, azkenik, aurtentzen lortu dugu. Honela sortu da herriko lehen Artisau Janarien Azoka». X

Nekazarien besta igandean

Behi, zaldi eta ardi azienden lehiaketak izanen dira nagusi Zapatenea zelaian

Seigarren aldiz egingo dute igande honetan Lekunberrin Nekazari Eguna. Inguruko abeltzainek euren azienda erakusteko aukera izanen dute bertan, baita sari garrantzitsuak irabazteko ere behi, ardi eta zaldi azienden lehiaketetan. Zapatenea zelaian egingen da egun osoan zehar nekazarien besta handia.

Irene Arizurieta / Iruñea

LEKUNBERRIKO Zapatenea zelaian Nekazari Eguna ospatuko dute igandean seigarren aldiz. Larraungo Udalak antolatuta. Ohiturari jarraiki, goizeko hamarretatik aitzina lehiaketak eta nekazaritza giro ezin hobea izanen dira protagonista egun osoan zehar. Hiru izanen dira ekitaldi nagusiak: frisiar motako behi-azienda lehiaketa —Nafarroa osoan egiten den bakarra—, Burguete arrazako zaldi-azienda lehiaketa eta latxa arrazako ardi mutur gorrien lehiaketa.

Lehiaketa hauei dagokienez, bada aipatu beharreko berrikuntzarik aurtengo ekitaldian. Izan ere, frisiar motako behi-

azienda lehiaketa eskualdekoa izan beharrean probintzia osokoa izanen da igandeko Nekazari Egunean. Guztira, bederatziganduzalek 36 buru aurkeztuko dituzte Zapatenea zelaian. Gainera, lehiaketa amaituta, behi mota honetako bigantxa talde bat enkantean banatuko dute antolatzaileek. Zaldi lehiaketan, berriz, 60 buru erakutsiko dira, eta Larraun, Lekunberri, Leitza, Areso, Ultzama, Basaburua, Imotz, Sakana, Araitz eta Beteluko hamalau abeltzainek hartuko dute parte. Ardien lehiaketan, aldiz, lote desberdinak aurkeztuko dira.

Behi-azienda lehiaketari dagokionez, hainbat sari banatuko dituzte igandean Lekunberrin aurkeztu abeltzainen artean, hala nola: bigantxa onenaren saria, behi gazte onenaren saria, behi heldu onenaren saria eta behi idor onenaren saria —azun egoten denean baina esnea eman gabe—. Sari hauen guztien irabazleen artean, gainera, Lekunberriko txapelduna aterako da. Lehiaketan parte hartuko duten behi guztien artean ere, azkenik, errape onena duen behia sari tuko dute antolatzaileek, baita esne gehien ematen duen behia ere. Aipatu bezala, behi-azienda lehiaketa ezezik, ardi- eta zaldi-azienden lehiaketak ere ikusgai

izanen dira igandeko besta egunean. Zaldi eta ardi artean ere hainbat sari banatuko dituzte Nekazari Egun honetako antolatzaileek.

Urte urte hobetzen doan

Eguna • Nekazari Egunaren VI. edizioak 2,5 milioi pezetako (100.000 libera hor nonbait) aurrekontua dauka. Larraungo bailara oso nekazaritza gunea zela aintzat hartuz abiatu zen aipatu eguna. Antolaketan buru-belarri aritzen den Josetxo Golarazena larraundarrak azaldu duenez, «beharrezkoa ikusten genuen horrelako jai antolatzea hemengo azienden balioa berriz igotzeko eta, bide batez, bailarako nekazarien lana sustatzeko. Orain dela zortzi urte egin genuen lehendabiziko aldiz, eta oso ongi ateratu zen. Orduan jarraitzea pentsatu genuen. Hasieran urteroz izaten zen, baina aurrekontua urte urte igo egiten zela ikusirik, bi urtean behin egiten hasiak gara».

Aurtentzen beste norabide bat eman nahirik enkantea ere antolatuko dute, eta ernari dauden lau bigantxa enkantera aterako dira. «Merkatu gisako bat lortzea da xedea. Ganaduaren kalitatea ona da, urte urte hobetzen doa eta Eguna merkatu gisakoa bihurtu nahi dugu. Behietan hazi

asko ari da sartzen, eta hori nabaritzen da, eta behorretan ere kalitatea gero eta hobea da. Gainera, lehiaketa egiteak ganaduzaleak alaituko dituzte goizean. Ganadu lehiaketaz landa, Zapatenea zelaira hurbiltzen denak zaldikia dastatzeko aukera izanen du, pintxoak banatuko baitira. Hemezortzi artisau euren jaiak —gazta besteak beste— eta eskulanak erakutsiko dituzte, eta nekazaritza tresneriari buruzko erakusketa ere paratuko da. Bestalde, gurasoek ganadua ikusten duten bidenabar haurrentzat gaztelu puzgarria egongo da.

Honetaz gain, izanen da besterik ere igandean Lekunberrin. Aralar Musika Eskolako txistulari eta akordeoilariek herriko kaleak alaituko dituzte goizean. Ganadu lehiaketaz landa, Zapatenea zelaira hurbiltzen denak zaldikia dastatzeko aukera izanen du, pintxoak banatuko baitira. Hemezortzi artisau euren jaiak —gazta besteak beste— eta eskulanak erakutsiko dituzte, eta nekazaritza tresneriari buruzko erakusketa ere paratuko da. Bestalde, gurasoek ganadua ikusten duten bidenabar haurrentzat gaztelu puzgarria egongo da.

Goiza azienda tartean iragan ondoren, otordua egiteko beta hartuko dute Lekunberriko Nekazaritza Eguna joandakoek. Antolatzaileek bazkaria prestatu dute ordu bi eta erdietan frontoian, eta bazkarirako txartelak igandea baino lehen erosi behar dira Lekunberriko banketxeetan. Bazkalondoa Kristina eta Amaia trikitilariek eta Aralar Udal Musika eskolako txistulari eta akordeoi jolek alaituko dute. X

Marrazki bizidunak
egiteko tailerra Lizarran

‘Baru’, amets baten istorioa

Bost minutuko filmea egin dute herriko hainbat gaztek Udalaren eta Kimaren eskutik

Lizarrako Udalaren eta Iruñeko Kima taldearen eskutik, marrazki bizidunak egiten ikasteko tailerrean hartu dute parte herriko zazpi gaztek. Hori izan da helduentzat Kimak prestatu duen lehenengoa, eta emaitzak ezin hobekak izan dira. Aste honetan bukatu dute bost minutuko istorioaren filmaketa, eta datorren astean hasiko dira muntatzen. Jose Alberdi tailerreko arduraduna pozik da lortutakoarekin.

Edurne Elizondo / Lizarra

ALMUDI ELKARTEAK utzitako gela marrazki bizidunen erreinu bilakatu dute Kima taldeko kideek Lizarran. Ordenadorea, magnetoskopiaok, kamerak eta, nola ez, marrazki bizidunetako pertsonaia magiko eta harrigarriak. Jose Alberdi taldekideak hartu du bere gain Lizarran antolatu tailerreko ardurua —Kimaren egoitzatik at egindako lehenengoa—, eta bertan, lehen aldiz, gazte eta helduak izan ditu ikasle. Ez baitago adin berezirik marrazki bizidunak ikusi edota egiteko.

Iruñeko Sanferminak bukatuta hasi zen Lizarran Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Gazte-riaren Bulegoak Kimaren proposamenari jarraituz antolatu ikastaroa. Zazpi lagunek eman zuten izena, eta horiek dira egun hauetan plastilinazko panpinak protagonistia dituen bost minutuko filmea egiten ari direnak: Eva, Angel, Sara, Irati, Julia, Amaia eta Yisca, 13tik 35 urtera bitarteko gazteak guztiak.

Kima taldeak aspaldidanik egiten du lan grafismoaren munduan. Horren barruan, marrazki bizidunak, diseinua, publizitatea eta beste izan dira taldeko kideen lan jarduerak. Marrazki bizidunei dagokienez, ezaguna da, beste proiektu batzuen artean, Euskal Herri osoan eta baita bertatik kanpo ere Kimak sortu *Espazio magikoak* izeneko erakusketak. Lau atalek osatzen dute: erakusketak didaktikoak, tallerrak, musio txiki batek eta marrazki bizidunak nola egiten diren ikasteko proiektuak. Lizarran ere ikusgai izan zen, eta arrakasta itzela lortu zuen. Oraingo tailerra haren jarraipena da.

Amets baten istorioa • Kimak helduentzat halako tailerrak antolatzen dituen lehen aldia bada ere, emaitzak ezin hobekak izan dira orain artean. «Ikasle batzuek halakorik egiten duten lehen aldia da, baina badira zinemarekin harremana dutenak», azpimarratu du Jose Alberdik. Hori dela eta, «hasieran uste baino askoz urrunago allegatu gara. Bost minutuko filmea izanda ere, proiektu on eta serioa da».

Halako emaitzak lortzeko, hala ere, gogor egin behar izan dute lan ikastaroko kideek, prozesu luzea baita: istorioa asmatu, gidoia egin, idatzi, planoak aukeratu, *story board*-a prestatu, filmatu, ahotsa —euskaraz eta erdaraz egiten dute—, musika eta soinua bereziak sartu eta muntatu. «Lan asko egin behar dela konturatu dira, pazientzia behar

dela, baina gogoz aritu dira guztiak», azpimarratu du Alberdik. Filmaketa egun hauetan bukatu dute, eta datorren astean hasiko dira ahotsak sartzen eta muntatzen. Atzean hainbat lanordu. Zailena, denen irudiko, istorioa asmatzea izan da. «Pelikula bat, finean, zerbait kontatzea besterik ez baita», irakaslearen hitzetan. Eta Lizarrakoei *Baru* izenaz —Panaman itzalita dagoen 3.000 metroko sumendia da— bataiatu duten filmean amets baten istorioa kontatzea erabaki dute, guztien ideiak entzun eta lotu ondoren. «Mutiko baten ametsa da. Eskolan «hankaluz» erratan diote, eta baztertu egiten dute. Etxean amari azaltzen dizkio bere kezka guztiak, eta hark istorio bat kontatzen dio. Istorio hori ametsa da», aurreratu digu Jose Alberdik.

Filmaketari aste honetan eman dizkiote azken ukituak tailerreko kideek. Zeregin horretan aurkitu genituen guk, buru-belarri. Mahai gainean, pelikulan parte hartu duten panpina guztiak: sudurluzea, eskuluzea, sukaldaria, Lur izeneko sorgina, hainbat animalia... Plastilina ezezki, etxean aurkitutako hainbat gauza zahar erabili dituzte pertsonaia egiteko, baita papera eta bestelakoak ere dekoratuak sortzeko.

Panamatik Kubara zinematografia ikastera • Pazientzia handia behar da lan hau egiteko», erran digu Amaia 16 urteko gazteak kameraren atzetik. Halako apa-

railuak ere lehen aldiz erabili ditu oraingoan. «Baina ez da zaila izan, berehala ikasten da. Eta lana oso polita da. Gainera, filme bat egitea oso gauza berezia da, kontent nago». 17 urteko Julia ere iritzi berekoa da. Zinema, gainera, aspalditik du gustuko, eta tailerrak bere zaletasun hori areagotu besterik ez du egin. «Honetan lan egiten jarraitzea gustatuko litzaidake», azaldu du. Zinemaren arloan lan egiten duenik badu Juliak ondoan Alberdiren tailerrean. Yisca 35 urteko gaztea Panamatik Lizarrara iritsi zen orain dela ia bost urte. Beka bati esker, 1987. urtean Kuban sortu Zinema Eskolan ia lau urte eman zituen ikasten. «Unibertsitatea bukatu eta akustika ikasi nahi nuen, eta horretarako ikasi nuen zinematografia. Soinua eta dokumentalen zuzendaritza egin nuen». Zuzeneko soinua da, hala ere, bere espezialitatea. La Cuadrillaren *Justino, un asesino de la tercera edad* filmean, hain zuzen, zuzeneko soinuz arduratu zen panamarra. Beste hainbat filme eta dokumentaletan ere hartu du parte panamarrak eta lan horretan jarraitzeko asmo sendoa dauka.

Plastilinazko panpinekin egindako filmak ez dira berriak Yiscarentzat, Kuban ikasten ari zen bitartean ere egin baitzuen halakorik. Izan ere, nahiz eta berak gehien maite duena soinua alorrean lan egitea izan, onartzen du marrazki bizidunen berezitasuna: «Fikzioaren eremuaren



barruan fantasia sortzen duzu, garbiago da. Baloreak ere garrantzitsuak dira. Gure filmean, adibidez, istorioan agertzen den sorgina liburu bat da, jakituria- ren adierazgarri finean. Halaber, marrazki bizidunen bidez, helduen artean normalean lantzen ez diren gaiak eta kezak lantzeko aukera duzu».

Yiscak marrazki bizidunetaz buruz duen iritziarekin bat egiten du Jose Alberdik: «Marrazki bizidunek istorio bat asmatzeko aukera eskaintzen dizute, errealitateak ematen ez dituen gauzak asmatzeko aukera, eta modu horretan bestelako errealitateak sortzen duzu. Plastilinaz egindako panpinak, adibidez, mugitzen ez diren irudiak dira, baina filme batean bizirik daude, pertsonaia errealak dira. Niretzat hori guztia sortu ahal izatea da politena».


Lizarrako Udala kontent • Lizarrako Udala pozik da Kimak antolatu tailerrak lortu dituen emaitzekin. Halaxe azaldu digu kiko Eskobar Udaletxeko Euskara Zerbitzuko kideak. «Ez genuen uste hain lan dotorea egingo zutenik, pozik gara».

Kimaren *Espazio magikoak* Lizarrara iritsi zenean ere, arrakasta itzela lortu zuen eta Udala hasieran beldur bazen ere —beste erakusketak baino garestiagoa zen— berehala konturatu ziren marrazki bizidunetaz buruzko proiektu horrek jendea erakartzeko zuen ahalmenaz. «Herriko haur eta gazte guztiak ezezki, inguruko herrietako ikastetxetako ikasle eta irakasleak ere hurbildu ziren hona erakusketak ikusteko».

Hala ere, uste baino jende gutxiagok eman zuten uztaillean hasi zen ikastaro honetan parte hartzeko izena. «Agian gure errua izan da, ekainean agertu baitzen delaldia eta garai horretan ikasle guztiak azterketekin kezkatuta zeuden. Gainera, 15.000 pezeta balio zuen matrikulak eta agian horrek eragina izan du. Hala ere, kontuan hartuz ikastaroan egin dutena eta lortu dutena, ezin dugu erran tailerra garestia denik, ez horixe», azpimarratzen du kiko Eskobarrek.



Marrazki bizidunak
egiteko tailerra Lizarran



Istorioa asmatu, gidoia idatzi, planoak aukeratu eta filmatu egin dituzte Alberdiren ikasleek Lizarrako tailerrean. Muntatzea besterik ez da falta orain. Ondoren, jendea erakusteko prest izan da Baru.

«Zaletasuna piztu nahi dugu»

JOSE ALBERDI Lizarrako tailerreko arduradunak ederi ezagutzen du marrazki bizidunetako mundua. Izan ere, urte franko darama Kima Kultur Zerbitzuak taldea marrazki bizidunen eta grafismoaren munduan buru-belarri sartuta. *Espazio magikoak* erakusketak Euskal Herri osoan eta baita bertatik kanpo ere ezaguna egin dute, 1985. urtean sortu *Pitxu, alfer handia* laburmetraia estreinatu eta gero. Filme hau da, zehazki, erakusketaren aitzindari. Zuberoako maskaradetatik ateratako pertsonaia da *Pitxu*, eta berehala lortu zuen arrakasta. Euskal Telebista eta Antenne 2 te- lebista kateetan emittitu

zuten, besteak beste. Filmearen muntaiak eta produkzioa Hendaia eta Parisen egin zuten eta laguntza instituzional ugari jaso zuten. Laburmetraia honen inguruan erakusketak sortu ondoren, *Espazio magikoak*, era berean tailer berriei eman zieten hasiera. Haurrak izan zuten taller hauetako eskertuak marrazki bizidunen mundua gertutik ezagutu ahal izan zuten lehenengoa. Kimaren egoitzara hurbiltzen zen orok erakusten zuen interesa, baina, bidé berriak jorratzeko indarra eman zien taldeko kideei, eta euren tailerra hainbat udaletan proposatzen hasi ziren. Horietako bat izan zen Li-

zarrakoa eta berehala erran zuten baietz, uztailez geroztik abian den ikastaroari hasiera emanaz. *Pitxu, alfer handia* ezezki, beste hainbat lan ere egin ditu Kimak, besteak beste, 3 de marzo eta *Mixeria gorria* laburmetraiak, publizitate iragarkiak, bideoak eta iraupen ezberdineko beste hainbat filme ere. «Gure helburua jendek marrazki bizidunak nola egiten diren ikustea eta ikastea da, prozesua ezagutu baina parte hartuz, hau da, ikasten duten bitartean marrazki bizidunak egitea», azpimarratzen du Jose Alberdik. Horretaz gain, zaletasuna ere piztu nahi dute Kima talde-

koek euren tallerretan parte hartzen duen jendearengan. Orain arte egindako tallerretan bezala, Lizarran ere plastilinazko panpinak aukeratu dituzte Kima taldeko kideek prozesu hori guztia erakusteko. Alberdik plastilinarekin abantailak aipatu dizkigu: «Egia erran, halako taller batean marrazkiekin lan egitea gehiegizkoa da, asko luzatzen baita prozesua, beste pauso batzuk ikasi behar dira. Plastilinazko panpinak erabilizteaz errazagoa da eta, era berean, irudiei mugimendua ematen ikasteko aproposagoak dira. Plastilinarekin, gainera, berehala ikusten dugu gure lanaren emaitza».

Bertso afaria Inxausetan

Bunuzeko kanpin-antzerkiko udako kultur egitaraua bertso afariarekin amaituko da gaur arratsean



Xanpun eta Alkat -Ezpondari begira ageri direnak- bertso afarian kantari izango dira Murua, Mendizabal eta Irazurekin batera.

L. E.

Julen Arriola / Bunuze

NAFARROA BEHEREKO Bunuze herriko Inxauseta kanpin-antzerkian, kulturarekin bat egin dute aisiak eta turismoak 23 urtez. Gaur, aurtengo denboraldiko azken eguna dute bertan. Amaierarako, bertsolarien laguntza izanen dute Inxauseta kanpin-antzerkiko arduradunek. Bertan izanen dira Ernest Alkart, Jesus Mari Irazu, Mikel Mendizabal, Iñaki Murua eta Xanpun, arratsaldeko zazpietatik aurrera, antzerki izateko bokazio bizia duen kanpin bitxi honetako lehen bertso afarian parte hartzeko. Honetaz gain, izan da aurreko hilabeteetan zer ikusi Bunuzeko Inxauseta kanpinean.

Kultur egitaraua abuztuaren 9an hasi zen Mixel Etxekoparren eskutik, 110 ikusleren aurrean *Pirinioetako firfira* ikuskizuna aurkeztu zuen musikari zubero-tarrak, bere eskualdetik etorritako hiru belaunaldi ezberdinetako ahotsekin batera: Maddi Oihenart, JohaÑe Barkos, Christian Vieussens eta Ives Constantin. Gutxi ezagutzen den ibilbidea dute lau abeslariok musikaren arloan. Etxekoparrek Inxausetan aurkezteko propio sorturiko ikuskizunean, Muskildi eskolako haurrekin hartu zuten parte aipatu kantariak. *Pirinioetako firfira* hasi baino lehen Dominique Alchourroum eta Valérie Guerinnek piano kontzertua eskaini zuten. Astebate beranduago, be-

Bunuzeko Inxauseta kanpin-antzerkia kultur topaketarako gune izan da 1973. urtean Jean-Luc Berhok sortu zuenetik. Aurtengo udan ere egitarau zabala prestatu dute bertan. Musika eta kafe-antzerkia izan dira protagonista, baita gaurkoan bertsolariak ere. Inxausetako zuzendari berria den Nicole Le Flecher pozik agertu da aurtengo ekitaldiaren amaieran.

rriz, 70 lagun inguruk -Inxausetan kanpatutakoak ziren gehienak-, Moucezen kafe-antzerkia ikusteko eta ezagutzeko aukera izan zuen, uda honetako egitarauarekin jarraituz.

Zuzendari berria Inxauseta kanpinean • Nicole Le Flecher da Inxausetako zuzendari berria, kanpina orain 25 urte sortu zuen Jean-Luc Berhoren ordez. Aipatu bi ikuskizunek jende andana bildu ez arren, pozik agertu da zuzendaria aurtengo denboraldiari buruz hitz egiterakoan. Le Flecher bretaniarra da jatorriz nahiz eta Parisen bizi. Itzalean, Berhoren laguntzaile izan da urte anitz. Elkarteko administratzaile izan da zuzendari izandatu aurretik Nicole Le Flecher bretaniarra.

Zuzendaria ez da aurtengo

Turismoak eta aisiak
kulturarekin egin dute
bat 23 urtez
Inxausetako
antzerki-kanpinean

denboraldian Inxauseta kanpinean egon den gauza berri bakarra. Izan ere, aurreko edizioetan ez bezala, aurtengoan ez dira ekitaldi guztiak asteburu bakar batean burutu. Horren ordez, Donibane-Garazi eta Maule baten dituen errepidean kokatua dagoen kanpin berezi honetan hainbat ostiraletan zehar banatu dituzte aurtengo udako ikuskizunak.

«Neurri batean berrikuntza da -azaltzen du bretaniar jator honek-. Egia erran, *Inxausetako xoroak* ikuskizuna bi urtetan behin ospatzen da, eta hurrengoan, zerbait txikiagoa egiten dugu, familia artekoa. Mixel Etxekoparrek, kafe-antzerkiak eta bertso-afariak osatutako programa egokia iruditu zitzaigun horretarako. Gainera, beste urteetan bezala, ostirala aukeratu dugu gure egitaraua aurkezteko ekitaldi honetan ere, guretzat egunik onena baita halako ikuskizunak abian jartzeko».

«Parisen kasualitatez jaiozko bretaniarra» euskal elkarte batera nola ailegatu den, jende askok egiten duen galdera da. Inxausetako zuzendariak pozik gogoratzen du Nafarkariarentzat:

«Kasualitatez. Jean-Lucek euskal testu luze bat eman zidan behin eta makinaz idazteko eskatu zidan. Idatzi eta gero zer zen galdetu nion. Testu gehiago idatzi nituen ondoren makinaz, bere ekitaldietan parte hartzen hasi nintzen, eta bi urte beranduago, ahal izan nuen bezain pronto, Bunuzera etorri nintzen hau zer zen ikusi ahal izateko. Eta gaur arte».

Urte hauetan ikusi eta egindakoak gogoratuz argi azaltzen du Nicole Le Flecherrek: «Urte hauetan guztietan jendea ezagutzen ikasi dut, gauza anitz aurkitu dut eta konturatu naiz Euskal Herrian ezagutzen ditudan beste toki askotan baino sormen lan handiagoa egiten dela». Gogotarako aukera ere izan du: «Euskal Herrikoa ez izatea ez da oz-

Nicole Le Flecher
bretaniarra da
Inxausetako zuzendari
berria, Jean-Luc Berhoren
ordez

topo bat, bretaniarra naiz eta neurri batean arazo berdinak ditugu, nortasunaren arloan bereziki».

Kultura eta oporrak • 1973. urtean sortu zen Bunuzen Inxauseta. Orduz geroztik, erasokorra ez den kanpina nekazaritza gunearekin nahastea izan du helburu, bertako bizitzeko modua errespetatuz, beti ere. Erran bezala, Jean-Luc Berho izan zen Inxausetako sortzaile eta bultzatzailea, eta txoko hau, kultur topaketarako eta trukerako gune bihurtu nahi izan du. Urteroko eztabaiden bitartez, basamortutzeak jota dagoen nekazari gune honetan kulturaren bultzatzaile bilakatu da Inxauseta. Urte hauetan guztietan, neurri handiko kantari askok, mapan erraz aurkitzen ez den herri txiki honetara euren ahotsa eta hitzak eramateko alde batera utzi dituzte udako beste asmo batzuk.

Inxauseta, baina, ez da bakarrik Bunuzen gelditu. Bere historia luzean, Parisen ematen dituen denboraldi luzeak ongi aprobetxatu ditu Jean-Luc Berhok. Honela, Parisko UNESCO *Cantata de Cristobal Colon* ikuskizuna antolatu du. Baita *Notre Amerique à nous* ere. Ikuskizun hau, hain zuzen, Atahualpa Yupanquiren omenez, hainbat kantari euskaldunek eskaini zuten Parisko Olympia areto ezagun eta ospetsuan, 1994. urteko apirilean. X

◆ Jose Ortega ◆ Nafarroako Jaialdietako zuzendaria

«Espero genuena bete da»

A Itsasu, Iruñea, Tuter, Zangoza eta Lizarra Nafarroako Jaialdien lekuko izan dira abuztu osoan zehar. *Munduko hotsak* izenburupean, musika izan dute aurten protagonista bakarra, musika etnikoa, blues-a, fadoa eta new age-a. Hamaseigarren ekitaldia amaituta, Jaialdien etorkizunari buruz gogoeta egiteko garaia iritsi da.

Edurne Elizondo / Iruñea


JOSE ORTEGA Jaialdietako zuzendari aritu da aurten lehendabiziko aldiz, Kultur Ekintzarako Zerbitzuko zuzendaria denez. Pozik da aurtengo Jaialdi «esperimentalen» emaitzarekin. Etorkizunari buruz, dioenez, «Gobernu berria izendatu bitartean, zain gaude».

■ **Jaialdiak amaituta emaitzak aztertzeke garaia iritsi da. Zer iritzi duzu, oro har, kontuan hartuz apustu berri bat izan direla?**

Ildo horretan, aldaketa sakona izan da, diziplina anitzeko jaialdiak gai bakar bat izan baitu aurten oinarri. Arriskutsua izan da. Hori guztia kontuan hartuta, guk espero genuena bete da. Ikusleek oso ongi erantzun dute. 15.000 lagun inguru biltzea espero genuen, eta 17.000 izan ditugu. Programa prestatu genuenean ere kultura ezberdinen arteko elkartrukea zen gure helburua, eta horretarako musika erabili dugu. Alde horretatik, eduki anitz eskaini dugu eta, era berean, mota askotako ikusleak erakarri ditugu.

■ **Zer espimarratuko zenuke Nafarroako Jaialdien aurtengo e. ldi bereziari buruz?**

Alde batetik, Nafarroako ikusleak ez ezik, inguruko herrialdeetakoak ere hurbildu direla herri



Nafarroako Jaialdien zuzendaria izan da aurten Jose Ortega.

JOSE LACALLE

guztietara. Gainera, ikuskizun bakoitzak bere ikuslego aditu eta berezia izan du, guztietan egon den ikuslego leialaz gain. Eta ikusle horien eta artisten artean komunikazio handia sortu da; artistek jakin dute ikuslegoa nola erakarri. Aurtengo Jaialdietan, Iruñean eginiko ikastaro eta tailerrak izan dira punturik ahulena. Bestela, oso pozik gaude.

■ **Arriskua aipatu duzu. Zaila izan al da aurtengo Jaialdien moduko programa prestatu eta aurkezteko erabakia hartzea?**

Gogoeta sakon eta serioa egin dugu. Bai Estatuko bai Europa osoko jaialdiak aztertu ditugu eta, antza denez, diziplina ezberdinak biltzen dituzten jaialdiak desagertzeko bidean dira. Hala ere, kultur eskaintza gero eta zabalagoa da, eta orain arte guk Jaialdietan prestatu duguna,

Iruñeko Udalak antola dezake gaur egun. Beraz, gauza bera egiten jarraitzeak ez zuen zentzu gehiegirik eta aldatzea erabaki dugu. Gainera, argi dago jaialdi monografikoek lortu dutela nortasun propioa izatea. *Munduko hotsak* aukeratu genuen, inguruan gai hori lantzen duen berterik ez dagoelako.

■ **Aurtengo Jaialdiak amaituta etorkizunekoak prestatzerakoan, helburuak zehazten hasteko asmoa zenuten. Gobernu aldaketak, baina, eragina izan du zuen asmoetan, eta kolokan geratu da gogoetarako asmo hori.**

Bai, noski. Une honetan zain gaude. Ezin dugu deus egin. Guk aurtengo Jaialdien balantzea eginda lan egiten hasteko asmoa genuen eta, era berean, 1997ko Jaialdiak diseinatzeko hasteko. Nik, egia erran, nahiago nuke lau edo bost urteko epea kontuan hartuz lan egitea. Baina egoera hau dela-eta oraindik ez dakigu Nafarroako Jaialdiek zer bide hartuko duten.

■ **Baina zeintzuk dira Kultur Sailak lanean hasteko esku artean dituen irizpide nagusiak?**

Gure asmoa, edo aztertzen ari garen aukera bat, kultur aniztasunaren ideiarekin lan egiten jarraitzea da, baina Jaialdiak beste adierazpide batzuekin aberastuz. Kulturaren arteko elkartrukea oinarritzat hartuz, kultur hedapena landu ez ezik, formazioa eta sortzaileei eman diezaikegun laguntza eta bultzada ere kontuan hartu. Hala ere, gogoan izan behar dugu aurrekontuen arazoa. Hau da, Gobernu berria osatzen denean arduradun berriei egoera zein den azaldu beharko diegu. Azken urteetan, Jaialdiak gorde den aurrekontua murriztuz joan dela kontuan hartzen badugu, dimentsio honetako Jaialdiak egiteko asmoa bertan behera gelditu daiteke. Baina Nafarroako Jaialdiei nortasun propioa eman nahi badiegu, herrialde honetako kultur politikaren barruan programa emblematiko izan daitezkeen nahi badugu, argi dago eduki kontzeptual garran-

s o s l a i a

Jose Ortega Nafarroako Gobernu Kultura Saileko Kultur Ekintzarako Zerbitzuko zuzendaria da. Hori dela eta, Nafarroako Jaialdien zuzendaria izan da aurten. Berak, hala ere, nahiago du koordinatzaile hitza, «nire ustez, Administrazioak ez bailuke inoiz zuzendaritza artistikoa bere gain hartu behar».

Hamabost urtetan zehar noraezean ibili badira ere, Nafarroako Jaialdien kalitatea ezin daiteke zalan-tzan jarri Jose Ortégaren ustez. Hala ere, ikuskizunak hainbat herritan zehar barreiatzeak kalte egin diela dio. «Oraindik bada Nafarroako Jaialdiei Erriberriko Jaialdiak deitzen dienik».

Datozen urteetako Jaialdiak zehazten hasi aurretik, oraindik aurtengoek lortutako emaitzak gogoan ditu Jose Ortégak. «Harrigarria izan da hainbat artistak bildu duten ikusle kopurua ikusteak. Prestatutako espazioa txiki gelditu da askotan».

tzitsua izan behar dutela, baita antolaketa egitura berri bat eta aurrekontu handiagoa ere. Erakunde publikoek behar den dirua ematerik ez badute, beste iniziatibak bilatu beharko ditugu, bai soziala, bai pribatua.

■ **Nafarroako Jaialdiek orain arte izan duten nortasun ezaren arrazoitaz, besteak beste, antolaketa egitura finkoa ez izatea aipatu izan duzue Kultur Sailean. Zer iritzi duzu horri buruz?**

Jaialdiek izan duten arazo kronikoa izan da hori. Hainbat zuzendari izan dira, baita kudeaketarako hainbat formula ere. Aurten ni izan naiz zuzendaria Kultur Ekintzarako Zerbitzuko burua naizelako. Nire ustez, Jaialdiek zuzendaritza artistikoa behar dute, eta Administrazioaren eginkizuna koordinatzea izan beharko luke.

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI ER0A

LIRIKAZ HONATAGO
-27-
GAUR:
REGINA
Inazio Mujika
Irdola



Aitak maite ninduen ikaragarri.
Eta ez monja txatxu hauek bezala.

Jesus Maria eta Joxe!!

Beti jan ta beti guse!